

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ESKUERNAGAKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea Eskuernagako VI.9 San Torcuato Iparraldea industrialdeko esku hartze areako hirigintzako jarduketa programaren dokumentu zuzenduari**

Alkatearen irailaren 21eko 57/2021 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Eskuernagako VI.9 San Torcuato Iparraldea industrialdeko esku hartze areako hirigintzako jarduketa programaren (HJP) dokumentu zuzenduari. Eta, bat etorritik Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 156.3 artikuluan xedaturikoarekin, espedientea jendaurrean jartzen da 20 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urbanizatzeko jarduketa programaren alderdi nagusiak:

– Helburu duen jarduketa integratuaren identifikazioa: VI.9 San Torcuato Iparraldea industrialdea.

– Jarduketa sistema: ituntzea.

– Egikaritze araubidea: pribatua; hainbat jabe.

– Dokumentuak honako hauek dauzka:

1. HJPren aurrekariak eta xedea.
2. Eremuaren deskribapena eta egungo egoera.
3. Eduki juridiko-urbanistikoko alderdiak.
4. Eduki tekniko-urbanistikoko alderdiak.
5. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlana.

Epe horretan, interesdunek espedientea kontsultatu eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, udal bulegoetan (Errementari kalea 15, Eskuernaga), asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Eskuernaga, 2021eko irailaren 21a

*Alkatea*

**IÑAKI PÉREZ BERRUECO**